

EUSKAL GIZARTEA ETORKIZUNAREN AURREAN (2024ko martxoa) Prensa oharra

SARRERA

Azterlan honen gaia herritarrek etorkizunari buruz dituzten iritziak eta jarrerak aztertzea izan da. Landa-lana 2024ko otsailaren 26tik 29ra egin zen.

Munduaren etorkizuna

Euskal gizartearen gehiengoak ezkorra da munduaren etorkizunaren aurrean

"Munduaren etorkizunaren" pertzepzioa oso orekatua dago. Oro har, euskal biztanleria apur bat ezkorrago sentitzen da (% 51) baikor baino (% 45). Horregatik, datozen hamar urteetan etorriko diren aldaketak positiboak (% 35) baino zertxobait negatiboagoak (% 38) izango direla aurreikusten da.

Ikuspegi ekonomikotik, uste da roboten eta lan-sistema automatizatuen erabilerak langabezia handitzea ekar dezakeela, % 56ren ustez. Lau pertsonatik batek (% 23) uste du ez duela eraginik izango langabezian, eta % 12k dio benetan lanpostu gehiago sortuko dituela.

Etorkizunarekiko jarrera partekatuenak honako hauek dira: "etorkizunean konfiantza izan behar da, azkenean gauzak ondo aterako dira" (% 61), "orainean sakrifikatu behar dugu etorkizunean hobeto bizitzea lortzeko" (% 57) eta "hobe da orainean pentsatzea, etorkizuna ziurgabea da eta" (% 56).

Euskadiren etorkizuna

Euskal gizartea baikorra da Euskadiren etorkizunari dagokionez

Euskadiren etorkizunari buruzko baikortasuna handitu egin da. Hala, 2016an, oso edo nahiko baikorren ehunekoa % 67 zen, eta orain % 72ra igo da. Pertzepzio positibo hori bera ikusten da orain haur direnen etorkizuneko bizitzari dagokionez ere. Hala, etorkizuneko bizitzari buruzko ezkortasuna % 61etik % 54ra jaitsi da 2016an.

Euskal herritarrek uste dute bost urte barru gazteek gaur baino aukera gehiago izango dituztela bidaiatzeko (% 34 2016an, % 39 orain), unibertsitateko karrera egiteko (% 22 2016an, % 36 orain), lanbidea aukeratzeko (% 19 2016an, % 27 orain). Hala ere, gaur baino aukera gutxiago izango dituzte lana aurkitzeko (% 25 2016an, % 19 orain) edo etxebizitza aurkitzeko (% 18 2016an, % 8 orain).

Euskal gizarteari gehien egozten zaizkion kalifikazioen artean, honako hauek nabarmentzen dira: "langilea" (% 88), "tolerantea" (% 80) eta "igualitarioa" (% 74). Bilakaera nabarmenena hiru ezaugarritan eman da: "igualitarioa" (2005eko % 53tik egungo % 74ra) eta "tolerantea" (2005eko % 60tik egungo % 80ra); "erlijioso" (2005eko % 43tik egungo % 15era).

Hauek dira goranzko joera sozial nagusiak ondorengoak dira: etorkin atzerritarren kopurua (EAEko biztanleen % 81ek uste dute 5 urte barru gora egin duela), erantzukizun handiko postuetan dauden emakumeen presentzia (% 75), maskota duten pertsonen kopurua (% 72) eta petrolioaren ordezkiko energiaren erabilera (% 69). Mantenduko diren joerak ordea, zerbitzu publikoen kalitatea (% 40), langabezia (% 40) eta erretiro-pentsioak (% 37) dira. Aurreikusitako beheranzko joera bakarra familia bakoitzeko seme-alaba kopurua da (% 64).

Euskadiko ohituretan etorkizunean izan daitezkeen aldaketei dagokionez, hauek dira nabarmenenak: adimen artifizialaren erabilera eguneroko bizitzan (% 77), erosketak online egiteko ohitura (% 75) eta eskudiriaren erabilera txikiagoa (% 75).

Azkenik, Euskadik hurrengo hamar urteetan aurre egin beharko dien erronka garrantzitsuenak honako hauek dira: egoera ekonomikoa eta lan-merkatua (% 35), etxebizitza (% 24), zerbitzu publikoei eustea (% 19) eta ingurumena eta klima-aldaketa (% 11).

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 1.000 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa \pm % 3,16koa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2024ko otsailaren 26a eta 29a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

<http://www.euskadi.eus/ikerketa-soziologikoak>

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 15a